

Ohidura dantzatuak eta Ipar Euskal Herriko gizartea: ikerlarien uzta



Xabier Itçaina Malharin*

Nahiz ez den Iztuetarik izan Iparraldean, badu halere kasik bi mende ikerleak dantzeri ohartuak direla. XIX. mendean izan ziren aipamen bakar batzu, bainan ikerketa sistematikoak XX. mende has-tapenean hasi ziren. 1960-etik aintzina, bigarren belaunaldi batek hurbilagotik aztertu zituen dantzak berak. 1980 urteetan, olde berri bat agertu zen. Inkesta etnografiko klasikoen garaia joana bada ere, bada oraino zer mia besten bilakaeraz edo erritualen soziologia historikoaz.

Giltza-Hitzak : Dantza. Iparralde. Besta Berri. Tobera-mustrak. Ihauteriak.

Aunque en Iparralde no ha habido ningún Iztueta, hace ya casi dos siglos que los investigadores se dedican al campo de las danzas. Del siglo XIX sólo tenemos unas pocas menciones, pero las investigaciones sistemáticas comenzaron a principios del siglo XX. A partir de 1960, una segunda generación se dedicó de cerca al estudio de las danzas, y en los años 80 apareció una nueva oleada. Aunque el tiempo de las encuestas etnográficas clásicas ya haya pasado, todavía quedan aspectos por analizar en la evolución de las fiestas o en la sociología histórica de los rituales.

Palabras Clave: Danza. Iparralde. Besta Berri. Exhibiciones de tobera. Carnavales.

Bien qu'il n'y ait pas eu d'Iztueta au pays Basque Nord, cela fait près de deux siècles que les chercheurs travaillent dans le domaine de la danse. On trouve quelques mentions au XIXe siècle, mais les travaux de recherche systématique ne commencent qu'au XXe siècle. À partir de 1960, on retrouve une seconde génération consacrée à l'étude des danses et une nouvelle vague apparaît en 1980. Le temps des enquêtes ethnographiques classiques est révolu, mais il reste cependant encore des aspects à analyser concernant l'évolution des fêtes ou la sociologie historique des rituels.

Mots Clé : Danse. Iparralde. Besta Berri. Exhibition de « tobera ». Carnavals.

* S.P.I.R.I.T. Sciences Politique, Relations Internationales. Territoire Sciences Po Bordeaux. 11, Allée Ausone F-33 607 PESSAC. x.itçaina@sciencespobordeaux.fr.

SARRERA

Euskal Herrietako bertze lurraldek bezala, Iparraldeak ukan ditu bere ohidurazale amorratuak, aspaldi huntan gainerat. Dantzari lotuak diren ohidureri mugatuz, erran dezakegu guti edo aski hiru ikerle belaunaldi izan ditugula : XIX. mendetik XX. mende erditsuraino arizan direnak, 1960etik aitzina lanari lotu direnak, eta 1980 urteetan abiatu mugimendu berria. Ikerle horiek ate ainitz ireki dituzte eta ikaragarriko lana egin, hainbertzetaraino nun, gisa batez, norberak bere buruari galdegiten ahal dakon ze gelditzen den oraino ikertzeko? Bada halere mamia, ene ustez, hain xuxen metodo desberdinak elgar kurutzatuz, bai etnografia klasikoarena, oraino beittugu gauza batzu gure aitzinakoengatik zuzenean ikasteko, eta metodo historikoa, guti baliatua izana dena orain arte. Testu huntan, nahi nuke ene gogoeta bi sailetan moldatu. Lehenik laburbilduko ditut ordu arte eginak izan diren hiru ikerleen ekeia, metodologia eta emaitza nagusiak. Bigarren parte batean nahi nuke erakutsi badela oraino zer egin, bainan metodologia pixka bat aldatzekotan, edo hobeki erran Euskal Herrikan kanpo aspaldian landuak izan diren metodologia batzu hunarat ekartzekotan. Adibide bezala hartuko dut azken denbora hotan dudan proiektua, hau da, Lapurdi barnekaldeko ohidura dantzatuen soziologia historikoarena.

1. IKERKETA TRADIZIO SENDO BAT

Hegoaldean ez bezala, Ipar Euskal Herriko ohidura dantzatuak ez dira herriz herri baitezpada aldatzen. Ezin erran ezta ere ohidura dantzatuak Erregimen zaharreko probintzien arabera moldatzen direnik, Xiberuaren salbuespenarekin. Izaitekotz, eredu folkloriko bertsiak atxemaiten ditugu punta batetik bertzera. Dantzak urteko pesta jakin batzuen inguruan moldatzen dira, izan diten urteko zikloari lotuak (ihauteri, Pesta Berri, eliza-bestak, udako pastorala) edo biziaren zikloeri (gazteria, ezkontza, tobera-mustrak...). Xiberuaren kasu apartaz kanpo, ezin erran beraz baxenabartar edo lapurtar eredu finkorik badenik. Dantatzeko manerak, izaitekotz, emeki emeki aldatzen dira eskualdeka, eta behar da ballera edo haranera jeutsi estiloen aldaketak behar bezala segitzeko. Amikuzeko dantza jauzien emaiteko eta markatzeko manera, adibidez, Arberua eta Xiberukoaren arteko transizio bat da, eta Garaziko entreatetarik aski urrun gelditzen da. Lapurdi garaieko Makea-Lekome eskualdean, bestak eta dantatzeko manera arrunt auzoa duten Arberuatik hurbil dira, batez ere Besta Berriren inguruan. Aldiz, beti Lapurdin, Uztaritzeko kaxkaroten ohidura dute ainitzek ustezko "Lapurdiko ihauteri"-aren oinarritzat hartu. Errealitate konplexu hori ikerle belaunaldi desberdinek aztertu zuten, hasiz XIX mendetik gaur artino. Ez dut hemen lan horien aurkezpen sistematikorik eginen, badira jada hortarako tresna bibliografiko baliosak¹. Ene helburua belaunaldi bakotxaren ezaugarri nagusien aurkeztea bertzerik ez da.

1.1. Erleak: lehen ikertzaileak

Ipar Euskal Herriko dantzak ez ditu nehorek sistematikoki bildu eta aztertu –hasteko, dakitanez, ez argitaratu– XX. mendearen bigarren parte artino. Ordu arte, atxemaiten ditugu bi ikerketa mota.

1. Ikus (Inchauspé, 1998) eta www.dantzan.com webgunean aurkitzen den bibliografia.

Alde batetik, batzuk ohidura dantzatuak hurbiletik behatu dituzte, baina dantza berari ez dakote holako garrantzirik eman. Edo hobeki erran, dantzaren garrantziaz oharturik ere, ez dituzte baitezpada sistematikoki bildu dantza horien soinu eta urratsak. Horren lekuko ditugu Xiberoko maskaraderi buruz Chaho, Badé, J. D. J. Sallaberry, Mazéris eta bertzen lanak XIX. eta XX. mende hastapeanean. Baionako lizeoan irakasle zen Georges Hérelle-n arrangura zen, adibidez, antzerki herrikoia aztertzea, bere itxura guzietan : maskarada, tobera-mustra eta oroz gainetik pastoralak (Hérelle, 1925). Albert Léon-ek pastoralak aztertu zituen. Violet Alford ikerle ingelesak dantzen testuinguru errituala zuen helburutzat, Pirineoetako besta ziklikoetan berriz kokatuz. Izaitekotz, sinboloak zituen berexi nahi, eta ez doinu eta urrats guziak (Alford, 2004). Erleen gisa, lorez lore zabilan V. Alford, adibide zonbeit han eta hemen hartuz. Egia erran, hain zabala zuen miaztzeko eremua –Pirineo osoa, aipatu gabe Ingalaterrarekilako konparaketa– nun etzitzakon aise heldu denak sistematikoki biltzea. Xinaurritik gehiago bazaukaten R. M. Azkue edo Aita Donostiak. Kantuak zituzten oroz gainetik bildu bi elizgizonen Iparraldean. Artetik, dantza doinu parrasta bat ere hauteman zituzten. Bidarteko xirribikari eta dantza maisua zen Pili Taffernaberry baten errepertorioaren parte bat beizik etzuen, adibidez, bildu Aita Donostiak. Etzuen hemen Baztango txistulariekin egin zuen lan bera egin, nahiz eta ukan, Uztaritzen bereziki, tokiko dantza jauzien aldeko griña. Bertzalde, euskal kultura bere osotasunean hartu zuten hainbat eta hainbat ikerleek beti kapituluño bat eskaintzen zakoten dantzari, bizpahiru adibide balios emanez –Mutxikoen partitura Francisque Michel-en *Le Pays Basque* liburuan 1857an–, baina deus guti oren buru (Michel, 1857) (Veyrin, 1975 [1942]) (Gallop, 1930). Eta ez aipa XIX. mende aitzineko iturriak. Izaitekotz, Baionako historialariek zituzten artetan datu interesgarri batzu emaiten Erregimen zaharreko besta urbanoeri buruz. Edouard Ducéré-k hainbat datu bildu zituen Baionan pasatzen ziren printze, errege eta bertze jauntxoer egiten zezkieten ohoretaz (Ducéré, 1894, 1904). Baionak garai batean ukan zuen “La Pamperruque” soka dantza zeremoniala aztertu zuen bere aldetik René Cuzacq historialariak (Cuzacq, 1942). Baionako historialari horiek ere azpimarratu zuten nola iragaiten ziren Besta Berri-ko profesioneak hiri hortan Erdi Aro urrean eta Aro modernoan, ofizialen korporazioek kontratatzen zituzten “tambourin” (ttuntunero) eta arrabitarren garrantzia azpimarratuz. Donibane Lohitzuneri buruzko datu zonbeit batzu ere atera ziren, baina orohar iturri historikoen gauza guti eman zuten Baionatik kanpo.

Idazle eta ikerle bakar batzuek halere hartu zuten dantza bera gai bezala. Nahiz etzuten bilketa osorik egin, informazio bakar eta balios batzu bildu zituzten, denen onetan. 1897an, Charles Bordes-ek Donibane Lohitzuneko *Fêtes de la tradition basque* delakoetan hitzaldi bat eman zuen Iparraldeko eskualdunen musikari buruz, artetik dantzak pixka bat aipatuz (Bordes, 1989). 1927-an, *Bulletin du Musée Basque*, Baionako euskal erakustokiaren agerkariak, ale berezi bat eskaini zion Ipar euskal herriko dantzeri. Baina hor ere, gaia axaetik aipatu zen artikulutxo labur bezain balios batzuen bidez. Louis Dassance, Uztaritar eskualzaleak, *Les sauts basques et les vieilles danses labourdines* aipatzearekilaran, oroz gainetik bere sorherriko ihauteriak zituen barnatzen. Dantza jauzietaz gauza guti zion, baina emaiten zuen informazioak bazuen bere interesa: jauzien zerrenda bat, eta zertan ziren Lapurdiko eskualde desberdinetan. Gerlatik landa, Dassance-k aintz lagunduko zuen Jean-Michel Guilcher, aldi huntan ikerketa sis-

tematiko baten menturan, bainan lekuko baliosenak ordukotz xuhurtzear zoatzin. 1927-eko aldizkari berean, Constantin mirikuak Xiberuko dantza berezietaz egin zuen azterketa bat. Orduan bizi-bizian zegoen egoera bat aztertzen zuen, berez transmititzen zena. Halere bazen Xiberuan ere geroaren arrangura, eta, bertzeak bertze, Baionako Euskal erakustokiak dantzari eta txülulari primak antolatu zituen, Atharratzen bezala 1930-an (Belatcha, 1930). Sauveur Harruguet-ek Garaziko kabalkada hartu zituen gaitzat (Harruguet, 1927), eta Florentin Vogel, Donapauleko elizako orgiña joleak, Amikuzeko dantza jauzien tradizioa aztertu zuen. Azken lan balios horren bidez, Amikuzeko ttuntunero eta arrabitari zonbeiten izenak ere eman zituen (“Ttikoi” eta “Gattulu”), eta Donapaule bereko dantza ohidura doi bat aztertu zuen (Vogel, 1927). 1940 urteetan, Mixel Labéguerie gazteak nahi izan zituen baita ere tokiko dantzak doi bat miatu. *Aintzina* II aldizkarian agertarazi izan zituen 1943-4an tokiko dantzen aldeko artikulutxo zonbeit, orroitaraziz Hegoaldetik jinikako dantzen ikasteak etzituela tokiko jauzi zaharrak bazterrarazi behar (Itçaina, 2001). Berak egin zuen uztan, kantuak zituen oroz gainetik bildu, artetan dantza aire zati batzuekin.

1.2. Xinaurriak: 1960-1980 urteetako biltzaile sistematikoak

Dantzari dagokionez, funtsezko bilketak bigarren gerlatik landa eginak izan ziren, erran nahi baita frangotan tradizioa epeltzen edo galtzear zagoen mementut batean. Etzen ahatik berantegi oraino freskoak ziren orroitzapenak airean harrapatzeko. Jean Poueigh folklorista okzitandarrak Euskal ikasketen VIII kongresuan 1954an erakutsi zuen bere interesa euskal dantza eta kantuentzat, bainan etzuen ikerketa sistematikorik abiatu (Poueigh, 2003). Izaitekotz, bi izen berex ditzazkegu. Bata, Miguel Angel Sagasetarena. Iturendar hau Luzaideko ertor egon zen zonbeit urtez, eta han zegoen bitartean emeki-emeki lotu zen dantza jauzien biltze lan xeheari. Bizi-bizian zagoen ohidura baten lekuko zen orduan Luzaiden berean, eta auzoko garaztar herrialdetan. Faustin Bentaberry (1879-1936) Izpurako soinulari eta dantza maisu haundia zendua zen, bainan oraino hor ziren haren leinuko eta inguruko soinulari andana bat, Mixel Aumague-k erakutsi duen bezala (Aurnague, 1993). Aita Sagasetak 1977an agertarazi zuen bere *Luzaideko dantzak* bilduma famatua, emeki-emeki Ipar eta Hego euskal herriko dantzari eta soinulari ainitzen ezinbertzeko erreferentzia bilakatuko zena (Sagaset, 1977). Jakina den bezala, nahiz eta hastapeneko tirria Luzaiden izan, M. A. Sagasetak ikerketa behar izan zuen Baxenabarre guzira hedatu, bai eta Lapurdi eta Xiberora, dantza jauzien sistema konplexua bere osotasunean biltzeko. Hemendik laister agertu behar luken lan horren bertsione berri batean gainera, mutil dantza eta dantza jauzien eremua bere osotasunean biltzen du, Baztanetik Ossau-ko balleraino.

Jean-Michel Guilcher, hau sortzez bretoindarra, izan zen bertze xinaurri horietarik bat. Hamasei urtez ibili zen noizean behin, andreak lagundurik, etxez-etxe, herriz herri Lapurdi, Baxe Nabarre, Xiberu eta Biarnoko dantzen biltzen (Guilcher, 1984). Baztan-en ere egon zen, eta Maurixio Elizalde eta Mariano Izeta-ren erakaspina jaso. Hastapenean, Guilcher-tarrek etzuten baitezpada Euskal dantzen aztertzeko xede berezirik. Britainiako dantzeri buruz egina zuen J.M. Guilcher-ek

bere tesia, ikaragarriko inkesta lan bat zela medio. 1941an Hautes-Pyrénées-etan gertatu zen gazte talde batetaz arduratzeko, eta han egin zuen Argelès, Barèges eta Lavedan-eko “Bayard” deitu dantza-antzerkiaren azterketa. Handik gutira, Arbonan bizi zen adixkide batek galdegín zakon Britainian egin zuen lan bera Euskal Herrian egin zezan. Eta horrela hasi zen, lehenik Luhusoko eskualdean, hango tobera mustra, Besta Berri eta ihauteriak behatuz. Lana joan arau, ikerketa eremua hedatu zuen, eta, bertzeak bertze, Xiberoko azken dantza maisu haundiekin ikasi zituen *points de principe* eta dantza jauziak, ez beitzen normahiri emana. Sagasetak Luzaideko bolanten egunarekin egin zuen bezala, Guilcher-ek besta bakotxa bere testuinguruan kokatzen zuen, ahalik eta xehekienik. Berak aitorturik, badakigu metodologia zehatz hori zientzia naturaletarik heldu zitzakola, sail hortan beitzituen ikasketak eginak Parisen, delako Arbonako adixkidearekin batera².

Aitortu behar da baita ere 1960-70 urteetako Ipar Euskal Herriko jendek dantzaz eta ohiduretzaxola guti zaukatela, herri bakar batzuetarik kanpo. Besta Berri, kabalkada, pastoral eta maskaradak ahultzera zohatzen, Lapurdin dantza jauziak Lekorne-Makeatik kanpo etziren baitezpada hautemaiten. Bizi zen dantza kostaldeko talde folklorikoek zuten atxikitzen, baina izaitekotz hegoaldeetik jini-kako dantza batzu eszenatokitirako egokituz. Ph. Oyhamburu (Oyhamburu, 1948) eta R. Gallop-ek (Gallop, 1948) ukan zuten hortaz eztabaida bat *Eusko Jakintza* aldizkarian. Ikerketaren beharra egoeraren larritasunaren arabera koa zen.

1.3. Urtxintxak: belaunaldi berria

Urtxintxa aldaxkatik aldaxkara dabila, baina pausaleku bakotxean biltzen duenarekin erreserba on eta iraunkor bat egiten du neguaren menturan. Ikerketa mailan, gauzak emeki aldatuz joan ziren 1970 urteetan zehar. Orduan Donostiako Argia taldeaz arduratzen zen Juan Antonio Urbeltz Iparraldera hurbildu zen 1960 urteetarik aitzina, eta lotu hura ere ikerketari, bereziki Hegoaldeko eta Europako ikuspegi konparatibo aberats batekin. Lapurdin, Betti Bettelu, Thierry Truffaut, Claude Iruretagoiena eta Lapurtarrak elkartearen inguruan, tokiko ohidura dantzatuari interesatzen hasi ziren berriz ere. Lauburu elkarreak 1981an agertu bilduma garai horren lekuko baliosa da (Lauburu, 1981). Ihauteriak zituzten oroz gainetik landu ber-denboran dantzari eta ikerle ziren horiek, 1970 urte undarretan eta 1980 urteetan inkesta zonbeit eginez Lapurdiko hainbat herritan. Gehienetan, ihauterien memoria oraino bixi-bixia kausitu zuten, bereziki Sara, Ainhoa, Hazparne, Milafranga eta bertze zonbeit tokitan. Kaxkaroten itzuliak Uzta-ritzen eta Ezpeletan beizik etziren atxiki. Hazparden, kaxkarotak gelditu zituzten 1960 urteetan, eta berriz hasi, ororen buru frango fite, 1979an, herriko dantzari-ek bultzaturik. Elgarri lotuak zoatzin orduan ikerketa eta ohiduren “berreskuratzeta”. Baxenabarren, Garazi-Baigorri inguruan berriz hasi ziren tokiko kabalkaden ohiduren lantzen. Sinbolikoki, Garazarrek Faustin Bentaberry-ri egin zioten omenaldi bat 1979an, eta lapurtarrek Pili Taffernaberry zenari. Tobera mustrak ere araberritu ziren, lehenagoko gai moralistetarik urrundunahiz hasi beitziren 1970

2. Jean-Michel Guilcher-ekin ukan elkarrizketa, Meudon, 2008-ko otsailaren 18an.

urteetan tobera politikoak muntatzen Baxenabarran. Bertzeak bertze, Iholdiko toberak mugimendu horren lekuko izan ziren 1974an, Baigorrikoak 1976an, Eihalarrekoak 1988an edo Amikuzekoak 1991an (Irigoien, 1991) (Etchecopar-Etchart, 2001). Xiberuan, maskarada eta pastoralek hats berri bat ezagutu zuten. Aldaketa nagusienetarik bat izan zen pastoralen sujetena, emeki emeki euskal historiatic hartu pertsonaiak zirelaketz nagusi, eta ez lehen bezala xoilik Frantzia edo Elizaren ixtoriatic atera figura batzu.

Mugimendu horiek euskaltzaletasunaren arraberritze batekin batera zohatzen. 1990 urteetan, ikerle belaunaldi berri bat hasi zen testuinguru erritual horien aldaketaren aztertzen, batez ere antropologia kulturalaren tresnak erabiliz. Beti bezala, Xiberua izan zen ikerketa horren ekei nagusia. François Fourquet ekonomista heterodoxoak Urdiñarbeko 1982ko maskarada aztertu zuen, batez ere diskurtsoen aldetik (Fourquet, 1990). Eric Dicharry-k ildo hori hein batean segitu zuen maskaraden aspektu etnolinguistikoa landuz, 1990 urteetako maskarada zonbeit (Barkoxe 1995an, Muskildi 1996an, Larrañe 1997an) hartuz aztergai bezala, eta lehenatasuna emanez xorrotx eta kherestuen “pherediku”-eri (Dicharry, 1999). Kepa Fernandez de Larrinoak ikuspegi antropologikotik aztertu zuen Xiberuko antzerki herrikoia, batez ere Muskildiko maskaradetarik hurbilduz (Fernández de Larrinoa, 1992). Ikerle berak aztertu zuen emaztek erritualetan zuten lekua (Fernández de Larrinoa, 1997), bai eta zuzendu euskal folkloeari buruzko sintesi balios batzu (Fernández de Larrinoa, 1998, 2003). Véronique Inchauspé-k pastoralak aztertu zituen, eta Ipar euskal herriko dantzeri buruzko bibliografia ere bildu (Inchauspé, 1998). Hélène Etchecopar-Etchart-ek miatu zuen euskal antzerki berriaren bilakaera, tobera eta pastoralak testuinguru orokor batean kokatuz, ez bakarrik Euskal herrietan, baina europar mailan baita ere (Etchecopar-Etchart, 2001). Terexa Lekumberrik Irisarri inguruko tobera-mustrak (berezi 1937koak) aztertu zituen (Lekumberri, 1983). Ikerle eta ohiduren aktoreen arteko muga etzen garai batez bezain argia. Frangotan, tobera edo ihauteri berpizta-
lek hurbiletik aztertuak zituzten lehenik erritual horien iragana eta erran nahiak. Tobera eta antzerki idazle nagusi diren Antton Luku eta Mattin Irigoien-ek, adibidez, hurbiletik miatu zuten lehenagoko tradizioa (Irigoien, 1999) (Lucu, Othabure, 1992), eta ezagutza hori nabari zen gero beren antzerkietan egiten zituzten hautu emankorretan. 1995-ean, Garaztarrak Donibane-Garaziko dantza taldearen 40. urtemuga zela eta, kabalkada eta Besta Berrierik buruzko argazki bilketa eder bat antolatu zuten Baxenabarreko hiri nagusian, eta kari horretarat probintzia hortako ohidura dantzatuari buruzko lan bat ere agertu (Aurnague, Etchehandy, Etchevery-Bordarrampé, Lucu, Olhagaray, 1995). Patri Urkizuk (Urkizu, 1998), bere aldetik, bildu eta aztertu zituen lehenagoko asto lasterrek utzi heexa idatzi bakarrik. 1998an Baionan Eusko-Ikaskuntzak Europako antzerki herrikoia buruzko topaketak antolatu zituen, maskarada, tobera eta pastoraleri leku hauta emanez (Peillen et al., 1999). Rozlyn Frank-k (Frank, 1989) aztertu zituen Saran XIX. mende hastapenean iragan “Turrut arrosa”ren toberak, bai eta Lizaide inguruko karrusak. 1990 urteetan, Lapurdi barnekaldean ere berriz lotu ziren tobera-mustren usaia xaharrari, hor ere tokiko ikerketa zonbeiten ondorioz (Itçaina, 1998). Ikerketa eta ohiduraren bizia eta berpizteak ezin berexiak ziren.

Lehen eredu etnologikoan lanean ari zirenek ere erritua eta gizartearen aldaketa gero eta gehiago kondutan hartzen hasi ziren : etnologia, gisa batez, antro-

pologo bihurtzen zen. Thierry Truffaut-k bere azken lanean (Truffaut, 2005) Nafarroko Zubieta eta Lapurdiko ihauteriak aztertu zituen lehenagoko usaiak aztertuz, bainan gaur egungo egoerari ere leku handia emanez. 2005 eta 2008 artean, Barandiaran Beka zela medio, T. Truffaut-k burutu zuen ikerketa sistematiko bat Lapurdiko herri bakoitxeko ihauteriari buruz, lehengo eta gaurko formak eta erabilpenak aztertuz. Agian lan horrek merexi duen hedapen zerbeit ezagutuko du. Orohar, dantzari buruzko ikerketak hasi ziren, emeki-emeki euskal antropologiaren alaketari jarraituz. Joseba Zulaikak (Zulaika, 1996) erakutsi zuen ze bide iragan zen aitzinagoko etnologia esentzialistatik gaur egungo “adjetiboan” (feminista, kulturala, postmoderno, ...) antropologiara. Denis Labordek bertsularitzari buruz atera zuen obra ederra aldaketa teoriko eta metodologiko horren lekuko zen (Laborde, 2005).

Besta Berri pixka bat bide bazterrean gelditu zen mugimendu hortan. Alta, besta hori sinbolikoki aberatsa da, hor nahasten direlakotz hainbat elementu erlijioso eta herrikoiak, Euskal Herrian mundu katoliko guzian bezala (Molinie, 1996). Alabainan, besta hortan agertzen diren sinboloak etziren baitezpada euskaltzetasun olde berriaren gustukoak: eliza besta, harmak, bandera frantsesak, manu militarrak... 1989an, Aita Marcel Etchehandi, Beloke-ko beneditano euskalzale ezagunak Baionako diozesako “fedea eta kultura” taldeari eman hitzalditik landa, gauzak pixka bat aldatu ziren. Aita Etchehandi-k, Baiona, Hazparne eta Bastidako artxibo datuak hartu eta, untsa erakutsi zuen Besta Berri etzitakela ezaugarri edo erran nahi bakar bati mugatu (Etchehandi, 1989). Besta militarra, dudarik ez. Bainan ez baitezpada Napoleon-en garaiekoa, baizik eta iraultza aitzineko Lapurdi eta Baxe-Nabarroko milizia foralen orroitzapen sutsua. Besta Berri, bertalde, izadiaren pesta da : iruzki saindua ateratzen da karrika ihiztokatuetan, neskatxek loreak botatzen dituzte, eta besta hori Jondonibaneke erritoeri lotua da. Dantzaren garrantzia ere azpimarratu zuen Aita Etchehandik. Gogoeta bat abiatu zen beraz 1990 urteetan Pesta Berriri buruz. Usaia aspaldi galdua den tokian errexago da aldaketa erradikalen egitea. Hala gertatu zen Ezpeletan, Lapurdin, nun sortu zuten “Besta Berri berri” bat, elgarri nahasiz Lapurdi-Baxenabarreko eta Hegoaldeko danta batzu. Uztaritzen, gisa bereko nahasketa bat nahi izan zuten abiarazi, ezpata danta eta zapurrak uztartuz, bainan esperientziak etzuen luzaz iraun. Usaia beiratu zuten herrietan, batzutan aldaketa xumeak sartu zituzten (neskak dantzari edo sinodoko banderak Makean), bainan toki gehienetan, ordu arte zen bezala gelditu zen. Xipri Arbelbidek 2001an agertu zuen liburu bat zointan berriz ere azaltzen ziren besta horren erran nahi anitzak (Arbelbide, 2001). Liburu hortan aurki zitazken baita ere argazki zahar eta berri balios batzu, herrien arteko parekotasun eta desberdintasunen neurtzeko tresna paregabeak. Ildo beretik ari izan ziren Besta Berri-ren interpretazioeri buruz egin ziren berte lan zonbeit (Itçaina, 2000). Juan Antonio Urbeltz-ek untsa azpimarratu zuen Iparraldeko Besta Berri eta Hegoaldeko alarden arteko lotura (Urbeltz, 1995). John Ysursa-k orroitarazi zuen bere aldetik tradizioa esporta zitakela, erakutsiz Californiako Chino-ko Euskaldunek nola hasi ziren Besta Berriren ospatzen, zapur, oilar eta makilariekin, 1997etik aitzina³. Besta Berrietaz aparte, elizak ixtorian zehar dantzarekin ukan duen harreman bikoitzak ixtudio sakon bat merexi lukeela ez da dudarik.

3. <http://www.ysursa.com/Besta-berri.htm>.

Lan zonbeitek aztergai hartu zituzten ohidura dantzatuen erabilpen ideologikoak. Hemen, ikuspegia etzen hainbertzetaraino antropologikoa edo etnologikoa, baina izaitekotz soziologikoa eta zientzia politikoarena. Igor Ahedok, Ipar Euskal herriko abertzaletasunari buruz egin zuen tesian bide nabar aipatu izan zituen dantza eta folkloreak erabilpen ideologiko horiek (Ahedo, 2006, p. 459-468). James E. Jacob ikerlari estatubatuarra jada azpimarratua zuen dantza nola baliaitu zuten Iparraldeko ideologia erregionalista eta abertzale desberdinek (Jacob, 1994). Bertze lan batzuek erakutsi zuten 1936eko gerla zibiletik landa Iparraldera jin ziren Hegoaldeko errefuxiatuek nola inportatu zuten talde folklorikoen eredu, eta eredu hori nola hedatu zen lehenik kostaldean, eta gero hein batean barnealdean, salbu Xiberun (Itçaina, 1996). Jean-Claude Larronde eta Piarres Xarritton-ek ere azpimarratu zuten gerla denboran ere, Vichy-ren gobernu eta Okupazioan, nola erregionalismo euskalzale batek segitu ahal izan zuen dantza taldeen bidez, Euskaldun Gazten Batasuna zutela medio (Larronde, 1997) (Xarritton Zabaltzagarai, 1997). Bertzeak bertze, berantago politikari ezaguna bihurtu zuen Michel Labéguerie talde horien bultzatzaileetarik bat izan zen Uztaritze eta Bordelen. Pierre Bidart-ek aztertu zuen dantzak nola erabiliak izan ziren lehenik euskaltzaletasunaren ikuspegi erromantikoko baten bidez XIX mendean, eta XX mendearen bigarren partean, talde folklorikoen egituratzean, batez ere *Dantzariak* eta *Euskal Dantzarien Biltzara* federazioen arteko lehian, bai eta sare katoliko eta laikoaren arteko eztabaidetan (Bidart, 2001). Lan desberdin horietan, dantza Ipar Euskal Herriko nortasun kolektiboaren politizatzearen ixtorio zabal batean kokatua zen. Helburua etzen baitezpada ohidura dantzatuen oinarriko sentsua eta formaren aztertzea, baizik eta dantza horiek tresna kultural bezala nola erabiliak izan ziren erakustea.

2. AITZINA SEGITZEKO: XENDRA ZONBEIT

2.1. Sentsu egarriz

Ohidura dantzatuen munduan ohartzeko giro jakintza eta ekintza ezin berexiak direla. Ezagutza gose handi bat badute ohidurak biziartzeko dituztenek, iraganeko datuek gaurko eztabaidentzat baliaituz. Ikerketa aldetik, bi bide berex nezazke.

Lehena, dantza eta dantza soinu eta soinularien ezagutzari buruzkoa. Egia erran, dantzen biltzeko erabil zitaizken ahozko iturri gehienak agortuak dira, pentsa ditaizken arrazoinen gatik. Orduko ikerlek behar zen tenorean egin lan baliosari esker bildu behar ziren hitzak eta urratsak bilduak izan dira. Alde hortarik, ez pentsa, salbu mirakuluz, lehengo dantzen urrats edo soinuari buruz gauza haundirik ikas dezakegula gaur egun. Lekuko baliosenak joanak dira, eta ikerketa mota etnologiko bat haiekin. Ahatik, lehengo ereduaren iraupena eta aldaketeri buruz ainitz ikas dezakegu oraino adinekoren gandik, bereziki Xiberuan, Amikuzen, Garazi-Bai-gorri, Lapurdi kostaldean edo gutiago aztertuak izan diren Lapurdi barnealdean, Arberua edo Oztibarre inguruetan, bertzeak bertze. Lekuotasun biziak bilduz dantza maisu eta soinularien zerrenda osa ginezake, parte bederen. Alde hortarik, Miguel Angel Sagasetak prestatzen ari duen *Luzaidoko dantzak* bildumaren edizio berriari gehigarri aberats bat aurki dezakegu, dantza maisu eta soinularien zerrenda luze batekin, elementu biografiko interesgarriekin, Lapurdi, Baxenabarra, Xibe-

rua, Biarnoa eta Baztan barne. Bertzalde, dantza jauzien emaitako manera desberdinen biltzea oraindik kausi ginezake hein batean. Amikuzen, Burgaintzi-ko dantzariak Aiziritzen bildu zituzten eskualdeko adineko dantzari batzu 1989an kabalkada baten karietarat, eta jauziak eman zituzten hango molde eder eta berezian. Lekornen lan bera egin zuten 1995 eta 1996eko kabalkadak prestatzen ari zirela eta, eta horri esker Lekorne-Makea-ko dantza jauzien emaitako manera eta lehenagoko “eskolak” hobeki ezagutu ginintuen. Gisa bereko lana egin zuten Luhuson 2002ko kabalkadarentzat eta Heletan 2003koarentzat.

Iturri idatziek, aldiz, ez daukute oraindik beren sekretu guziak salatu. Soinu eta dantza urrats eskuizkribuen aldetik ezin erran gauza haundirik agertuko ote den ondoko urteetan. Gorago aipatu ikerle sistematikoek eskuizkribu *korpus* bertsua, salbuespen bakar batzuekin, baliatu zuten. Ahatik, bada oraino zer edan bertze iturri batzuetarik. Eta horrendako, orain arte oroz gaintetik etnologian arizan zirenek behar luzkete, eta behar ginuzke, behar bada historialariaren metodoak erabili. Dantzen aztertzea bestaren aztertzea da, eta besten aztertzea gizarte baten irudimenaren iraupenen eta aldaketen aztertzea da. Alde hortarik, 1970 urteetako *histoire des mentalités* frantses historialarien eskolak baluke zer erakats. Ez dugu Ipar Euskal Herrian Michel Vovelle (Vovelle, 1976), Yvez-Marie Bercé (Bercé, 1976) edo Maurice Agulhon-ek (Agulhon, 1979) egin zituzten ikerketen parekorik. Frangotan suertez aurkitu datu batzu aipatzen ditugu –Pesta Berriko soinuari eta guardaren pagoak, adibidez–, baina ez da oraindik itxudio sistematikorik. Aita Etchehandik alde hortarik bide baliosak ireki zituen Hazparnen eta Bastidan egin miaketekin, baina bada oraindik nun zer jorra. Pirineoetako historia sozialean izan diren lanak behar litaizke hartu oinarritzat, ohidura dantzatuak gizartearen ikuspegi orokor eta zehatz batean kokatzeko gisan. Jean-François Soulet historialariak frantses Pirineoetako XIX mendeko gizarteaz egin duen sintesi garrantzitsuak hor dugu lekuko (Soulet, 2004).

Garai bakotxari hari doakion metodoa. XVII eta XVIII. mendeetako badira herrietako liburu konduak. Alde hortarik ez dugu Iparraldean Hegoaldean bezenbat iturririk, baina bada halere ekeia. XIX. mendetik aitzina, ezin preziatuzko bertze iturri bat hedatzen da : prentsa. J.-M. Guilcher eta bertzek aunitz landu dute iturri hori, baina, hemen ere, bada nun jorra. Adibidez, 1853tik harat antolatzen diren lore jokoetan dantza eta xirula zoin-gehiagokak izan ziren frangotan. Nahiz eta joko horietan antolatuak ziren bertsu lehiaketak eta bertze hainbat aspektu hurbiletik aztertuak izan diren (Davant et al., 1998) (Laborde, 2005 : 189-216 o.) (Bidart, 2001), balitaike dantzari buruzko lan baten gaia. Hurbilagotik behatuz, soinuari eta dantza maisuen zerrenda osatzeko jokoak balitaike, bereziki lapurtar tradizioari dagokionez, hau beita dudarik gabe gutien ezagutzen duguna, eta lehenik ixildu zena. Adibidez, informazioe aunitz aurki ditzazkegu Lapurdin Gerla haundia aitzin iragan ziren Lore joko batzuegandik, izan diten Abbadietarrek edo Guilbeau-tarrek antolatuak. Lapurdin 14-ko gerlatik landa xuhurtuz joan ziren lehiaketa horiek⁴. Betiere, gaur egun guti ezagunak diren dantzari eta

4. Bigarren Mundu gerlatik landa izan ziren entsegu bakar batzu, Baionakoa bezala, zointan bildu ziren bertzeak bertze Bidarra eta Makeako dantzariak. Baina ordukotz dantza jauzi luzeenak guti emaiten ziren.

soinulari batzuen berri ukaiteko parada emaiten dute gisa hortako iturriek. Aise datu gehiago bil ginezazke Baxe-Nafarroa eta Xiberoari buruz, nahiz bi probintzia horietako dantza maisu eta soinularien haria jadanik hobeki ezagutua den. Dantza zoin-gehiagoka horiek desafioaren kultura zaharra bazeramaten haiekin : dantza jauzi luze eta zailenak gogoz emaita, taldeka eta bakarka etzen nor nahiri emana⁵. Xiberun, “primaka” deitzen ziren lehiaketa horietan loratzen zen dantza-ri *sabanten* jakitate ikaragarria. Zoin gehiagoka horien ixtorioa oraino idaztekoa da, bai eta ere, Hegoaldean eгина izan den bezala (Sánchez Ekiza, 2003), soinularien ixtorio soziala.

Bigarrenik, dantza eta soinuen edukiaz gain, dantza eta gizartearen arteko loturak oraino barnatzekoak dira. Eta behar-beharrezkoa da lotura horien azterketa molde diakroniko batean egitea, historialarien datuak eta soziologo eta antropologoen eredu teorikoak uztartuz. Euskal Herriaren berezitasunetarik bat da ohidura dantzatuen marko errituala hein batean zaindua izan dela hainbat herri-tan. Frantzia, adibidez, eskualde gutitan aurki dezakegu gaur egun, salbuespen bakar batzu aparte, Xiberuko maskarada edo Heletako Besta Berriren pareko ohidura bizirik. Modernitate aitzinatu edo berantago modernitatean, bitxikeri batzu beiraten ditugu. Baina ez gira gehiago erritual horiek huntu zituen gizartean. Iraganetik errezebitu ditugun soinu, urrats eta janzkerak baliatzen ditugu errituala errepikatzen dugun aldi oroz, baina funtsezko sentsua ez dugu baitezpada argia. Maska jaunsten dugu, maskaren erranahia frangotan menperatu gabe. Erritual bakotxaz egin daitazke ainitz irakurketa. Lehena, behar bada, *estetikoa* litaike : plazan agertzen diren dantza, soinu eta jauntzien edertasunari da behatzen. Bigarren irakurketa, *soziala* da: erritualetan, gizartea agertzen da bere osotasunean, batzutan bere hierarkietan edo zatiketetan ere. Sail hortan ere, guti edo aski aztertzen ahal dugu garai bakotxean gauzak nola emanak eta hartuak diren. Ahatik, irakurketa *sinbolikoaren* parean frangotan galduak gira, hain xuxen, urratsak, soinuak eta arropak ez bezala, erranahi sinboliko hori ez daukutelakotz aitzinekoek utzi. Tobera mustretan, argiki ulertzen dugu zer eta nor den salatua prokuradorearen hitzaldian. Argatik, ez dakigu xuxen zergaitik huxerra hiltzen eta arrapizten den. Edo basandere eta andere xuriek zer derasaten. Xiberuko maskaradan, kauteren predikuak zer dion bisitatu herriaz untsa ulertzen dugu, baina Pitxu zergatik hiltzen eta arrapizten den ez dakigu. Besta Berritan, Sakramendu sainduaren pabilluna zoin etxetako gizonek eremaiten duten badakigu, baina prosesi-one aintzinean dabiltzan oilarrek ze erran nahi duten ez dakigu. Ez dira nahasi behar, beraz, irakurketa estetiko, sozial eta sinbolikoak. Eta erranahi gosez gabiltzan gaurko garaian, ez ditugu itzalguneak jasaiten ahal. Orduan bi “esplikazione” mota entzuten dira frangotan: bata historikoa (Besta Berri, adibidez, Napoleonen armaden pasaiaren orroitzapen bezala); bertzea sinbolikoa (Besta Berri izadiaren goresmena, Jondonibaneri lotua dena). Eta bertze hainbat irakurketa. Tes-tuinguru hortan, ikerleak gero eta gehiago galdeginak dira: nor hitzaldi baten emaita, nor herri hunen berezitasunaren frogatzeko, eta abar. Ezagutzaren

5. Lore jokoetako danza jauzi zoin gehiagokeri buruzko datuentzat, ikus (Itçaina, 2008). Lehiaketak etziren dantza jauzietan mugatzen. Adibidez 1911-ko agorrilan Jean Etchepare lekondar-rak Alduden antolatatu zituen dantza lehiaketak honela antolatua ziren: 1. Igandean: Euskaldun dan-tza jauziak: bi prima. Astelehenean: fandangoak. Prima bat (15l.) lauen artean partekatze. 3. Astelehenean: Kadrillak: 15l. 4. Asteartean: Mazurka (10l.) (Charriton, 1988, p. 136).

gizartean, erabaki kolektibo guziak molde errazional batean justifikatu behar balire bezala. Gizarte globalizatuaren testuinguruan, iduri luke herri bakotxak nahi lukeela bere berezitasun ttipienetarikoa ahal bezenbat atxiki, bere nortasunaren seinalea balitz bezala. Erritualek beti beren garaieko beldurreri dute erantzuten. Oronen buru, nortasun indibidual eta kolektiboen krisiari untsa ihardesten duten tokian tokiko erantzunak dira ohidura dantzatuak, eta beren funtzioa betetzen dute alde hortatik, ez badu bederen tokiko nortasun horrek krispazio edo tentsio berririk sortzen.

2.2. Iturri solas: ikerketa programa bat lapurdi barnekalderako

Aldaketa horiek behar dira epe luzean neurtu. Eta alde hortarik, ohidura dantzatuaren soziologia historikoa oraindik egitekoa da. Adibide bezala aipa nezake Lapurdi barnekaldeko ohidureri buruz hasi dutan epe luzerako ikerketa bat, batez ere erabiltzen dutan metodologiaren gatik.

Marko geografikoari dagokionez, ene ikerketa bi kantonamendueri mugatzea deliberatu dut: Ezpeleta eta Hazparne, horiek beitira Lapurdi barnekaldeko herriak biltzen dituztenak. Eskualde hori interesgarria da alde batetik arrunt guti aztertua izan delakotz –Xiberua ez bezala–, eta bertzalde Lapurdi eta Baxe-Nabarreko ohiduren juntan delakotz. Herritik herrira susma ginezake nun ihauteriaren premia, kaxkaroten ohidura azkar batekin, nun Besta Berrirena, nun tobera mustren oroitzen fresko edo epeldua. Bertzalde, bi kantonamenduen kondutan hartzeak herri baten monografia beino urrunago joaiteko parada da, bainan sobera eremu haundia hartu gabe. Kronologiari dagokionez, helburua litaik ohidura dantzatuaren bilakaeraren aztertzea ahalik eta urrunegi joanez, gaur egun artino. Maleruski, Aitzinagoko Erregimeneko (1789 gabe) datu guti beizik ez dugu. Halere, han eta hemen gure eskualdeari buruzko datu zonbeit atxeman ditzazkegu herrien deliberoetan edo auzi batzutan. Baionako hiriko artxiboak, argatik, izigarri aberatsak dira, Erdi-arotik geroz, eta frangotan aurkitzen da hor barnekaldeko herrien berri. XIX. mendeko artxiboak aberatsago dira, eta oraino miaztekoak dira neurri haundi batean.

Urteko besta desberdinek eskatzen dute metodologia berezi bat bakotxarentzat. Prentsa izan daiteke iturri balios bat XIX-XX mendearentzat. XIX. mende undarrean bereziki, opinioezko prentsa bat hedatzen da Baionan, klerikala alde batetik, “gorria” bertzetik. Noizean behin aipatzen dituzte bestak, eta nahiz eta xehetasun etnografiko bakar batzu atera ditaizken, artikulu horiek oroz gainetik besta zonbeiten politizazioa dute erakusten. Hirugarren errepublika garaian, Besta Berriko prosesoak laudatuak dira edo kondenatuak, Elizaren armadaren indarraren lekukotzat hartuak edo ihauteri iduriko maskarada erridikuloak bezala aurkeztuak (Itçaina, 1997). Gero, besta bakotxak manatzen du metodologia zehatz bat. Kabalkadak, adibidez, jakina den bezala, tobera edo galarrotsen azken urratsak beizik etziren. Gauazko toberak etzutelarik beren emaitza ardietsi –erran nahi baita, biktimak gazteria gisa batez pagatzea– gazteriak deliberatzen ahal zuen egun batez, plaza betean eginen zazkotela tobera-mustrak, erran nahi baita “agertzen diren” (*montre*, frantses zaharretik) toberak. Gure eskualdeari dagokionez, baitezpadako iturria Georges Hérelle-n lana da. Hari esker ezagutzen ditugu kantona-

menduko tobera-mustra zonbeit. Berak Luhuson 1922an ikusi zituenen deskribapen zehatza ere badugu. Bainan etzituen apentziarik ere denak bildu. Prentsaren bidez bertze zonbeiten berri aurki ditaike. Herriko artxiboetan ere atxeman daitazke aztarna batzu. Itsasun 1859an, suprefetak baimen bat eman zakon auzapezari gazteriak “besta haundi” bat apaila zezan, “nehore ez izendatzekotan”. Pentsatzen ahal dugu hor bazitakela tobera mustra zerbeiten mentura. Bertzalde, kabalkaden aztertzeak gauazko galarrots edo toberer behatu gabe ez luke sobera sentsurik, hainbertetaraino beitera elgarri lotuak bi usaiak. Pertsu bakar batzu ere hor ditugu lekuko. Ohiduraren alderdi bortitz eta ilun horren miazteko badira gure eskualdean oraino guti erabiliak izan diren iturri batzu: artxibo judizialak. Iraultza Haunditik landa eta 1950 arte, Frantziako kantonamendu bakotxean baziren bake jujeak, eta haien eskutik pasatzen ziren garrantzi ttipiko aferak. Ezpeletako kantonamenduko bake jujearen artxiboen azterketa sistematikoak 1821etik 1903ra argitarat emaiten ditu 70 gauazko tobera beino gehiago. Bertze iturri desberdinen gandik 25 bat plaza betean iragan tobera-mustra atxeman ginezazke kantonamendu berean XIX. mendetik 1960raino. Ez da dudarik zinez iragan zirenen gauazko toberen kopurua aise inportantago zela: hemen aipatuak direnak dira bakarrik prozedura bat jasan behar izan dutena, eta polizak kausitu dituenak, oroz gainetik herrietako karrika nagusietan. Metodo aldetik, behar litaik artxibo horien azterketa 1950 arte segitu, eta junta egin azken toberetaz bildu ditugun ahozko orroitzapenekin. Gisa hortara neurtu ginezazke bederen hiru elementu: a) ohiduraren kuantifikazio minimo bat: nun iragaiten ziren, ze arrazoinen gatik, nor ziren jokolariak, nola iragaiten ziren; b) ohiduraren errepresioa: zuzenbide Estadoa nola sartzen den Euskal herrietan XIX mendean; c) ohiduraren ahultze eta hiltzea: noiz eta zergaitik gelditu ziren gauazko toberak. Ikerketa sozio-historiko horiek behar-beharrezkoak dira ulertzeko, alde batetik, ohidura nola ahulduz joan den gizartearen aldaketaren arabera, bainan baita ere ulertzeko zergaitik arrapiztu diren 1990 urteetan plazako toberamustrak Lapurdi barnekaldean, hain xuxen lehenagoko bortitzkeriaren orroitzapena ahultzera zoan tenorean. Gizarteak nahi duena ahanzten du, eta iraganaren irakurketa baikor eta selektiboeri esker ditu ustez aitzinagoko besta zonbeit arrapizten.

Ihauterieri dagokionez, azken urte hauetan T. Truffaut eta tokiko jende egin dituzten bilketa sistematikoak hor dugu datu etnografien aldetik. Artetan prentsan agertzen diren aipamenak ere behar litaizke bildu. Gauza bera herrietako pestentzat. Eliza-bestak gazteriaren esku izanki eta, ez dugu horien aztarna haundirik atxemaiten herrietako artxiboetan, besten antolaketa etzelakotz, edo bakan, herriko kontseiluaren esku. Besta Berrirentzat, gauzak konplikatuago dira. XVIII. mendean, herri zonbeitak –Makean edo Hazparden bezala– beren kondu hartzen zuten egun hartan aterako ziren soinularien (atabala, xirula eta tamburina) pagatzea. XIX. mendean, tokiko milizien segida hartu zuen *Garde nationale rurale* delakoak, eta harek zituen Besta Berriko prosesioneak segitzen. Makea edo Kanbon, adibidez, herriko kontseiluek egiten zituzten ordainketen berri aurki dezakegu. Gaur egun egiten ahal dugun ahozko inkestaren bidez, badakigu Besta Berriko despendioak herri batzutan gazteriak pagatzen zituela –eta dituela (besta komiteak)–, bertzetan parropiaren gain direla, batzutan herriko etxeak parte hartzen duela, arropak berri behar direlarik adibidez. Alde hortarik, Gipuzkoako Alardeentzat –Antzuolakoan bezala (Bullen, Kerexeta, 2007)– baliatua izan den ikerketa metodologia baliagarri litaik Iparraldeko Besta Berrien aztertzeko tenorean.

Ez gira hemen datuen aurkezten hasiko. Artikulutxo hunen helburua lehen lehenik metodologikoa zen. Zertan da Ipar Euskal Herriko ohidura dantzu edo folkloeari buruzko ikerketa? Lehenagokoek utzi uzta nasaia baliatuz, uste dut behar ginuzkela gaur egun bi bide ber-denboran jorratu. Lehena, iraganaren eza-gutza. Datu historikoak eta etnologikoak ahal bezenbat bildu behar dira, gaurko metodologia zehatzenekin, gauzak beren heinean ezartzeko. Bigarren bidea, interpretazioarena da. Behin datuak untsa ezagutu eta –bainan orduan bakarrik– ausart gintaizke hiru irakurketetan (estetikoa, soziala eta sinbolikoa) sartzen. Ez dut dudatzen gisa hortako lanetarik aterako diren emaitzek sortuko dutela solasaldi, eztabaida eta ihardokitze, erantzun bezenbat galdera sortzen dituelakotz beti edozein ikerlanek.

ERREFERENTZIAK

- AGULHON, Maurice. *La République au village*. Paris: Seuil, 1979.
- AHEDO GURRUTXAGA, Igor. *El viaje a la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2006.
- ALFORD, Violet; FOCH, Anne (trad.). *Fêtes pyrénéennes*. Portet-sur-Garonne: Loubatières, 2004 (1. edizioa : *Pyrenean festivals*, London: Chatto & Windus, Toronto: Macmillan, 1937).
- ARBELBIDE, Xipri. *Besta Berri*. Lasarte-Oria: Ostoa, 2001.
- AURNAGUE, Mixel. « Faustin Bentaberriren eragina Baxe Nafarroako musika eta dantzetan: aparteko kasu bat ». *Txistulari*, 156, 1993, 8-12 or.
- AURNAGUE, Mixel; ETCHEHANDY, Marcel; ETCHEVERRY-BORDARRAMPÉ, Annie; LUCU, Antton; OLHAGARAY, Denise. *Dantzaz ele. Autour de la danse en Basse-Navarre. En torno a la danza en Baja-Navarra*. Donibane Garazi: Garaztarrak 40 urte, 1995.
- BELATCHA. « Un concours de tchülülari à Tardets ». *Bulletin du Musée Basque*, 11 zk., 1930, 72-76 or.
- BERCÉ, Yves-Marie. *Fête et révolte. Des mentalités populaires du XVIe au XVIIIe siècle*. Paris: Hachette, 1976.
- BIANCHI Serge; DUPUY, Roger (dir.). *La Garde nationale entre nation et peuple en armes. Mythes et réalités, 1789-1871*. Rennes: Presses universitaires de Rennes, 2006.
- BIDART, Pierre. *La singularité basque. Généalogie et usages*. Paris: PUF, 2001.
- BORDES, Charles. « La musique populaire des Basques : 54 chansons, noëls, mélodies, airs nationaux, avec musique ». In: *La tradition au Pays Basque (Congrès de Saint-Jean-de-Luz, 1897)*. Donostia, Bayonne: Elkar, 1989 [1899]; 297-354 or.
- BULLEN, Margaret; KEREXETA, Xabier. *Mairuaren alardea. Antzuolako alardearen lehena, oraina eta geroa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, ikerketa txostena, 2007.
- CHARRITTON, Pierre. *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. III. Kazetaritza*. Donostia: Elkar, 1988.
- CONSTANTIN, Albert. « Les danses spéciales du pays de Soule », *Bulletin du Musée basque*, 1927, 4. urtea, 1-2 zk., 13-20 or.
- CUZACQ, René. *La Pamperruque, danse bayonnaise*. Bayonne: Chez l'auteur, 1942.

- DASSANCE, Louis. « Les sauts basques et les vieilles danses labourdines », *Bulletin du Musée Basque*, 1927, 4. urtea, 1-2 zk., 21-30 or.
- DAVANT, Jean-Louis et al. *Antoine D'Abbadie, 1897-1997, Congrès international*. Bilbo, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998.
- DESPLAT, Christian. *Charivaris en Gascogne. La 'morale des peuples' du XVIe au XXe siècle*. Paris, Berger-Levrault, 1982.
- DICHARRY, Eric. « Approche ethnolinguistique des mascarades souletines ». In: *Oihenart*, 16 zk., 1996, 87-136 or.
- DUCÉRE, Édouard. *Essai de bibliographie historique des entrées solennelles et des fêtes publiques de la ville de Bayonne*. Dax: Labèque, 1894.
- . *Entrées solennelles, passages et séjours des rois, reines et grands personnages dans la ville de Bayonne*. Bayonne: Lamaignère, 1904.
- ETCHECOPAR-ETCHART, Héléne. *Théâtres basques. Une histoire du théâtre populaire en marche*. Bayonne, Gatuzain, 2001.
- ETCHEHANDY, Marcel. *Jantza Euskal Herriko elizetan*. Baiona: Fedea eta kultura, 1989.
- FDEZ. DE LARRINO, Kepa. *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinoetako haran batean*, doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1992.
- . *Mujer, ritual y fiesta. Género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soule*. Pamplona: Pamiela, 1997.
- FDEZ. DE LARRINO, Kepa. (coord.). *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Saila, 1998.
- . *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*. Pamplona: Pamiela, 1998.
- . *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Saila, 2003.
- FOURQUET, François. « La mascarade d'Ordarp », *Bulletin du Musée Basque*, 129 zk., 1990, 56 or.
- FRANK, Rozlyn. « Singing duels and social solidarity : the case of the Basque charivari ». In: W. Douglass (ed.), *Essays in Basque social anthropology and history*. Reno: Basque programme, occasional papers series, 4, 1989; 43-80 or.
- GALLOR, Rodney. *A book of the Basques*. London: Macmillan & Co., 1930.
- . « Innombrables extravagances sur la danse basque », *Eusko Jakintza*, 1948; II zk., 37-42 or.
- GUILCHER, Jean-Michel. « Danses et cortèges traditionnels du Carnaval en pays de Labourd », *Bulletin du Musée Basque*, 46 zk., 1969; 6-35 or.
- . « Musique, poésie et mouvement dans la pastorale souletine », *Bulletin du Musée basque*, n° spécial *Hommage au Musée Basque*, 1989; 357-391 or.
- . *La tradition de danse en Béarn et Pays basque français*. Paris: Maison des Sciences de l'Homme, 1984.
- HARRUGUET, Sauveur. « La danse en Basse-Navarre », *Bulletin du Musée Basque*, 1927, 4. urtea, 1-2 zk., 26-36 or.
- HÉRELLE, Georges. *Le théâtre comique basque*. Paris: Champion, 1925.

- INCHAUSPE, Véronique. "La danza tradicional en el País Vasco continental". In: Kepa FDEZ. DE LARRINOA (coord.), *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza Kultura saila, 441-446 or.
- IRIGOIEN, Mattin. *Amikuzeko toberak*. Bayonne: Maiatz, 1991.
- . « Tobera berriaz... Edo hobeki erran : gaurko toberaz », *Euskera*, 44, 1 zk., 1999; 283-291 or.
- ITÇAINA, Xabier. « Aintzin solasa : Luzaideko dantzak eta gu ». In: J. M. Sagaseta, *Luzaideko dantzak – Danzas de Valcarlos (2gen edizioa, emendatua)*, 2009 (agertzekotan).
- . « Danse et chant en Pays Basque nord ». In: Denis LABORDE (dir.), *Kantuketan, l'univers du chant basque*. Bayonne. Donostia: Elkar, Euskal kultur erakundea, 2002; 209-252 or.
- . « Interpretazioen harat-hunatak : Pesta Berri Ipar Euskal Herrian. La Fête-Dieu face à ses interprétations en Pays Basque nord », *Euskonews & Média*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 102 zk., abendoaren 1-15, 2000.
- . « Michel Labeguerie eta dantza. Michel Labèguerie et la danse ». In: DARRAIDOU, Laurent et al., *Michel Labèguerie, Omenaldia - Hommage*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001; 45-53 or.
- . « Tobera-mustrak Lapurdi barnekaldean », *Sukil, cuadernos de cultura tradicional*, 2 zk., Iruña-Pamplona, 1998; 2-18 or.
- . « Eliza, herri-kultura eta politika. Besta Berri Ipar Euskal Herrian », *Uztaro*, Bilbao, 20 zk., 1997; 3-16 or.
- . « Danse, rituels et identité en Pays Basque français », *Ethnologie française*, 26, 3, 1996; 490-503 or.
- JACOB, James E. *Hills of conflict. Basque nationalism in France*. Reno, University of Nevada Press, 1994.
- LABORDE, Denis. *La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque*. Donostia: Elkar, 2005.
- LARRONDE, Jean-Claude. « La culture basque sous l'occupation ». *Oihenart*, 14 zk., 1997; 221-229 or.
- LAUBURU; *La danse basque*. Bayonne: Lauburu, 1981.
- LEKUMBERRI, Terexa. *Etude sur les toberak ou parades charivariques*. Mémoire de licence en ethnologie. Université de Bordeaux II, 1983.
- LUCU, Antton, OTHABURE, Xan. *Toberaren definizio baten bila: iturri batzuen azterketa eta bilakaera*. Lizentzia txostena, Euskal ikasketak. Baiona: Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1992.
- MICHEL, Francisque. *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Paris: Firmin Didot, Londres: Williams & Norgate, 1857.
- MOLINIÉ, Antoinette (dir.). *Le corps de Dieu en fêtes*. Paris: Cerf, 1996.
- OYHAMBURU, Philippe. « Quelques mots sur les danses basques ». *Eusko Jakintza*, 1948, II; 557-562 or.
- PEILLEN, Txomin et alii.. *Europar herri antzertia. Teatro popular europeo. Théâtre populaire européen*. Oihenart, cuadernos de lengua y literatura, 16 zk. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.

- POUEIGH, Jean. « De la musique chez les Basques. Leurs chants et leurs danses populaires ». In: *VIII Congrès d'Etudes basques. Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua, VIII Congreso de Estudios Vascos (8. 1954, Baiona, Uztaritze)*. Donostia: Eusko-Ikaskuntza, 2003; 35-43 or.
- SAGASETA, Miguel Angel. "Estudio de los bailes de Valcarlos". *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 20 zk., maiatza-aboztua, 1975; 119-182 or.
- . *Luzaidoko dantzak. Danzas de Valcarlos*. Iruña: Diputación Foral de Navarra, Principe de Viana, 1977.
- SÁNCHEZ EKIZA, Karlos. *Txuntxuneroak : narrativas, identidades e ideologías en la historia de los txistularis*. Tafalla: Altaffaylla, 2003.
- SOULET, Jean-François. *Les Pyrénées au XIXe siècle. L'éveil d'une société civile*. Bordeaux: Editions Sud-Ouest, 2004 (1en edizioa : Toulouse Eché, 1987).
- TRUFFAUT, Thierry. *Joaldun et kaxkarot. Des carnivals en Pays Basque*. Donostia, Elkarlanean, 2005.
- URBELTZ, Juan Antonio. *Bailar el caos. La danza de la osa y el soldado cojo*. Iruña: Pamie-la, Ikerfolk, 1994.
- . *Alardeak*, Bertan, 8 zk. Donostia: Diputación Foral de Guipúzcoa, 1995.
- URKIZU, Patri. *Zuberoko irri teatroa. Recueil des farces charivariques basques*. Baigorri: Izpegi, 1998.
- VEYRIN, Philippe. *Les Basques. Du Labourd, de Soule et de Basse-Navarre. Leur histoire et leurs traditions*. Paris: Arthaud, 1975 [1942, Bayonne, Musée Basque].
- VOGEL, Florentin. « Note sur la danse dans la région de Saint-Palais (pays de Mixe) ». *Bulletin du Musée basque*, 1927, 4. urtea, 1-2 zk.; 37-41 or.
- VOVELLE, Michel. *Les métamorphoses de la fête en Provence de 1750 à 1830*. Paris: Flammarion, 1976.
- XARRITTON ZABALTZAGARAI, Piarres. "Alemanak eta Baionako Eliza (1940-1944)". *Oihernart*, 14 zk., 1997; 203-215 or.
- ZULAIKA, Joseba. *Del Cromañon al Carnaval. Los Vascos como museo antropológico*. Donostia: Erein, 1996.